

telebista ♦ irratia

Igandean itzuliko da Tele5era Karlos Argiñano sukaldaria

Programa berria igandero emango da, arratsaldeko ordu bietatik aurrera

Erredakzioa / Donostia

Urtebete telebistatik kanpo izan ondoren, igande honetan itzuliko da Tele5era (T5) Karlos Argiñano sukaldari beasaindarra. Igandero, arratsaldeko ordu bietan emango da aurrerantzean *Karlos Argiñano con mucho gusto* sukaldaritza saioa, hogeitabost minutukoa.

TELEBISTA munduan ospe handia eskuratutako Karlos Argiñano sukaldaria igande honetan itzuliko da Espainiako T5 katera. Gainera, Asegarce TV ekoiztetxeak Urnietan duen egoitzan egingo den *Karlos Argiñano con mucho gusto* saioak hainbat aldaketa izango ditu. Alde batetik, saioa asteen behin bakarrik emango da, igandean, arratsaldeko ordubietan. Bestetik, saioak bi zati nagusi izango ditu, ohiko errezetaz gain ardoek ere garrantzi berezia izango baitute.

Errezeten zatian, Karlos Argiñanok bi plater prestatuko ditu. Lehenengoa erraz



Sukaldaritza saio bat aurkeztuko du berriz ere Tele5 katean Karlos Argiñano beasaindarrak.

egitekoa izango da, eta bigarrena, berriz, plater landua. Era berean, plater horiek egiterakoan Karlos Argiñanok garrantzi berezia emango die saltsei.

Saioaren bigarren zati batean, berriz, ardoari buruzko aholkuak emango ditu Argiñanok. Janari bakoitzarentzako zein ardo aukeratu behar den eta

halako gaiak azalduko ditu sukaldari beasaindarrak.

Karlos Argiñanok berak aurkeztu eta zuzenduko du saioa, eta errealizadorea Iñigo Urreaga izango da.

laburrean

Emakumeek politikagintzan duten lekua 'Forum' saioan aztergai

David Barbero kazetariak goizeko hamarretatik aurrera aurkeztu duen *Forum* elkarrizketa saioak emakumeek politikagintzan betetzen duten lekua aztertuko du gaur. Horretarako, Arantxa Elizondo EHUKo Gizarte Zientzien Fakultateko dekanordea izango da saioko gonbidatua. Elizondok Euskal Gizarte Errealitatearen saria jaso berri du, emakumeek politikan duten lekuari buruz egindako ikerketa bati esker.

Maddalen Iriarte 'Bertatik Bertara' saioan

Maddalen Iriarte *Gaur Egun* albistegiko aurkezlea izango da gaur gaueko bederatzietatik aurrera ETB1eko *Bertatik Bertara* saioan. Andoni Aizpuru eta Maddalen Iriartek astelehenan hasiko den *Gau:On* eztabaida saio izango dute hizpide. Maddalen Iriartek aurkeztuko du saio berri hori, bi ordu ingurukoa. Era berean, Iparraldeko hainbat ikastolatako musika irakaslea den Pantxika Solorzano ere izango da gaurko *Bertatik Bertara* saioan.

Drogak aztergai La2 kateko 'La noche temática' saioan

Drogak legalizazioa ala gaur egungo debekua mantendu? Eztabaida horixe izango da hizpide gaur gaueko hamarretatik aurrera La2eko *La noche temática* saioan. Hala, lehendabizi gaur egungo debekuak dakartzen ondorio ekonomiko, sozial eta osasun arlokoak aztertzen dituen *En nombre de la droga* dokumentala eskainiko da. Ondoren, Gus Van Santen *Drugstore Cowboy* filma emango dute. Bertan, drogak lortzeko farmaziak lapurtzen dituzten gazte batzuen istorioa kontatzen da. Azkenik, bi drogazale alemaniarren berri ematen duen *Viaje infernal* dokumentala eskainiko da.

txoritxoari mokoka

♦ Ines Intxausti

Izar fitxaketak

ZAILA eta ezinezkoa egiten zait «Zein da zuretzat Espainiako Estatuan ikusten diren telebista kateen artean onena?» galderari erantzutea. Baina ondo dakit zein den nik orokorrean harturik gehien ikusten dudana: Tele5. Atzo edo herenegun etxera heldu bezain laster egin nuen menu telebisiboak, beti bukatzen zuen Carlotiren etxean. Programazio osoari begira ondo, ezin hobeto, biribildu dute produktu marka. Nork esan orain, telebista pribatuen hasierak Tele5eko *Mamachicho* eta *Cacao maravilloso*-ren itzalean izan zirela? Egun TVEk Tele5ek baino aukera ofentsiboagoa eskeintzen du ikuspegi etiko eta estetikutik. Zalantzarik gabe, *Periodistas* izeneko ekoizpena bikaina atera zaie. Eta hori telesaila baldin bada gure *Goenkale* ez da telesaila. Beste kontzeptu batekin definitu beharko dugu. Zeren eta *Goenkale* eta *Periodistas* ez dira genero berekoak. Ez horixe.

Joan den asteazkenean —herenegun

hain zuzen ere— *Ellas son así* saioa hasi zen. Zeluloidean grabatuta balego fakturazioa oso zainduta dago euskarriari begira. Eta bertako protagonistak izateko egin duten *casting*-ak telesailean azaltzen diren umeak ere kontuan hartu ditu. Maria Barranco, Neus Asensi, Maribel Verdu eta Maria Adanez lau ahizpa dira. Zinemagintzan telebistan besteko esperientzia dutenak laurak. Aldamenean Quique San Fancisco eta Ramon Madaula daude. Eta orain arte azaldu diren bi gazte jatorren artean beste izen bat: Fernando Ramallo, *Carreteras secundarias* pelikulan nabarmendu zen mutiko azkarra. Zerrenda profesionala izaten denean dena eginda dagoela ematen du. Hemen askoz ere urrunago joan dira. Elkarrizketatzaile ausartenak aukeratu ditu, Fernando Trueba bera baita telesail honen ekoizlea. Baina programa honek

ekarri duen berrikuntza txalogarriena pertsonaien barne joera da. Eszena guztietan Errioxako ardoa edaten ari ziren lau emakume eta bere ama, batzuk zigarro bat eskuan zutelarik gainera. Bi gauza horiek humanoago bihurtzen dituzte protagonistak ni bezalako audientziaren aurrean. Pozgarria iruditzen zitzaidan hori, *La casa de los líos* sukalde publizitarioarekin alderatuta, adibide gisa. *Ellas son así* usainik ez duen produktu freskoa da. Oraingoz. Hala ere, politikoki zuzena ez den hasiera horren ondotik, etorkizuneko hankasartze posibleak barkatuak ditu nire aldetik. Xabier Sarda ere berrirori hasi da —TP sariaren aurkezpenarako liberatu zuten— Martitzen. Joan den urteko une onenekin osatu zuen saioa. Zoritxarrez bere planetan geratu nintzen pit-bull txakur arrazari buruzko eztabaida arte. *Ellas son así* telesailak utzitako ardo zapore gozoak berehalaxe joan zitzaizkidan eta amesgaizto zoofiloak nagusitu. A zer gaua!